

erdiko kainera



Literatura

Mixel Thikoipe

Amikuztarra da Mixel Thikoipe, Amenduzen (Nafarroa Beherea) sortua 1948an; Domintxinen bizi da. *Hotz bero* eta *Gorrail Azeria* (Maiatz) liburuen egilea da. Lehenean 18 narrazio bildu ditu, bigarrenean *Le Roman de Renard*-en istorioak itzuli ditu. Musikaria ere bada. Xorrotxak taldea sustatu zuen behiala eta Pil Pil-ean ari da egun. Bere eleen doinuei esker, joan badoan baina oraino gurekin dugun mundua irudikatu dugu.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Gaizka Iroz

«Idazle naiz idazten dudan unean»

DOMINTXINE herria Amikuzen dago, Zube-roarekiko muga-mugan eta Biarnoko mugatik bi kilometrorra. 550 bizilagun inguru bizi dira bertan, Mixel Thikoipe horien artean: “Ni Amenduzen sortu nintzen, eskualde berean, Donapaleu ondoan; laborari etxe batean. Zazpi haurride ginen, lau anaia eta hiru arreba. Anaia gehiena apez joan zen, eta bigarrena emaztekoa izanik, nihaurek hirugarrenak etxeko segida hartu behar nuen...”

Mixekek hamar urte zituela amak ezbehar bat ukan zuen eta Donapaleuko frantziskotarren etxean egon zen hiru urtez, barnategian: “Etxetik bost kilometrotara nintzen –pentsionean erraten dugu guk–, baina oporretan baina ez nintzen sartzen etxera. Ez dut oroitzapen txarrik alabaina”.

Hamairu urterekin Hazparnera joan zen laborantza eskolara. Ez zuen eskolan segitu nahi eta etxera itzuli zen berriz. 1968an armadara joan zen eta handik itzultzean, etxeko laborantzian ari zela laborantzako aprendizia egin zuen. Lur Berri kooperatiban hasi zen lanean gero: “Donapaleuko hamar kilometroko erradioan bizi izan naiz bizi guzia; inguru honetan pasa dut bizitza. Hogei urte nituen, laborari nintzen, baina langile edo estudiante munduarekin ez nuen harremanik. Nik ez nuen 1968ko maiatza delakoa bizi izan. Uztailean armadan sartu eta mobilizatuak izan ginenean ohartu nintzen maiatz ospetsu hartaz...”

Nolako haurtzarora duzu gogoan Mixel?



“Ene euskara erabili dut. Ene euskalkiaz idatzia zelako beldur gutxiago nuen irakurria izateko. Maite dut idaztea, baina ez naiz, baitezpada, kontalaria, bizitzako momentu batzuk larri hartzen ditut eta birsortzea maite dut”

Haurtzarotik oroitzapen onak ditut. Herriko eskolan bost urterekin hasi nintzen, erdaraz hitz bat ere jakin gabe. Frantsesez ikasi nuen franko ongi, eta maite dut. Arestian erran bezala, etxetik jalgitzea gogorra da, baina jakin izan dut nire burua egokitzen bizi nintzen lekura. Haurtzaroko nostalgia gisako hori badut.

“Haurtzaroko eta munduko istorioak Amikuzera ekarri ditu Mixel Thikoipek” irakurri dugu hor nonbait. Badira istorioak haurtzaroan inspiratuak, *Eskolarateko bidean* izenekoarekin hasten da *Hotz bero* liburua. Istorioak nonbaiteko gertariak dira, anitzak dira. Konparazione, *Hezurrak* isto-

“Idaztean eta kantuetan berdin gertatzen zait. Kantua jin behar zait. Nehork erraten badit ‘egizu kantu bat’, nekez ariko naiz”

Thikoipe

“Thikoipe izena arraroa da. Thikoipe izendatzen diren guztiak gure familian dira, ez dugu beste nehon entzun edo atzeman. Genealogia maite dut, ene anaia-arrebek ere bai. Paueko artxibategian ordu anitz eman ditugu izena ikertzen. Izenaren jatorria zehazki nondik heldu zen jakin nahi genuen eta, Jean-Baptiste Orpustanen ikerlariarekin mintzatu ginen. Bere aburuz, Behaskanen (Amikuzeko) 1688an altxaturiko etxe bat bazen: Zikhoiperrena. Emeki-emeki Thikoipe bilakatuz joan zena. Orpustanek dioenez, okzitaniar izena da ziur aski: Zhikoik eta Pierrek osatua. Euskal izena ere izan daiteke, euskal izenetan ‘pe’ ere agertzen baita, ‘behea’ adierazten du”.

ria kazeta batean irakurri nuen; Alsazian gertatua duela bost bat urte. Hezur batzuk aurkitu zituzten eta soldadu batenak zirela ohartu ziren gero. Inspirazioa horrela ere hartzen dut, istorioak ez dira guztiak historikoak, egungo asko ere badira.

Zerendako idazten duzu?

Zerbait errateko dudalako, bistan da. Alabaina ez dut beti lotura egiten haurtzarorekin. “Kasu eman nostalgiari” erraten didate lagunek. Nihaurek naturalki heldu zaidana izkiriartzen dut. Ene euskara erabili dut. Ene euskalkiaz idatzia zelako beldur gutxiago ukan dut irakurria izateko. Maite dut idaztea, baina ez naiz baitezpada, kontalaria, bizitzako momentu batzuk larri hartzen ditut eta birsortzea maite dut. Gero irakurle bakoitzak zer hartzen duen... ez dakit. Anitz irakurtzen dut, ez hainbeste idatzi. Maleruski frantsesez irakurtzen dut gehiena, hori da ene damua. Nihaurek ez dut bidaiarik abantzu egin bizitzan, baina literaturaren bidez, konparazione, Errusiaino joaten naiz hango autoreekin.

Nola gauzatu duzu *Hotz bero* liburua?

Puskaka idatzi dut, zatiñoz zatiño. Hobeki erranik aspaldi idatzitako zati asko dira. Denbora pasako zerbait bezala hasi nintzen, asmo konkreturik gabe. Egia erran ez nuen pentsatzen ene burua liburu honen bidez agertzea —ez *Gorrail Azerbaiarekin* ere—. Istorio batzuk errealitateari lotuak dira baina ez ditut gertatu bezala kontatu, bistan da. Ni ez naiz idazle, ez dut nire burua horrela ikusten. Kazetaria enetzat idazlea da. Artikulu baten egiteko jakin behar duzu ondo idazten, eta hori enetako izugarria da, nik ezin dut hori aise egin.

Ideiak baditut, baina nola idatziko dudan deliberatzea ez da aise. Kantuetan berdin gertatzen zait, kantua jin behar zait. Nehork erraten badit “egizu kantu bat”, nekez ariko naiz. Ideia heldu bazait, orduan bai. Hartakoz erraten dut ez naizela ez idazle ez kantari, zentzu “profesional”-ean. Niretzat idazlea Itxaro Borda da, adibidez. Ni idazle naiz idazten dudan momentuan.

Hotza eta beroa, gaua eta eguna, irria eta negarra, iragana eta oraina... Bitasun bat ageri duzu liburuan. Ekialdeko filosofia heldu zait gogora.

Tao delakoaz ari zara, ezta? *Yin* eta *Yang*-a. *Hotza* eta *beroa*. Ez nekien zer titulurik eman. Luzien Etxezarretak galdeturik, bazela dualitate gisako bat pentsatu nuen, hotz eta bero, tristura eta poza...

Protagonisten artean baserriko morroi edo mutila ageri da, esaterako.

Etxean guk ere mutilak ezagutu ditugu. Mutil horren gisakoak ezagutu ditut. Istorio hori idatzi nuelarik gizon hori ezagutu nuen, 1983an. Klinikari zen. Hark kontatu zidan nola urtetan mutil aritu ondoren erretreta-etxean nahi zutela sartu, ez zelako gehiago lanik. Handik egun batzuetara jakin nuen bere buruaz beste egin zuela. Horrek markatu ninduen. Hori da izkiriatu nuen lehen istorioa, puska bat idatzi nuen, gero gehiago landu nuen eta istorioak bere bilakaera hartu du.

Xori-buru izenekoa oso errotua da zure munduan.

Alta *Le Monde* kazetan irakurri nuen artikululu ttipi batean inspiratu nintzen, Brasilen haur bat oihera joan zen, ez zelako gauza bere herrian atxikitzeko. Bere burua zaldi batentzat hartzen zuen. Ideia hortik heldu zitzaidan gogora. Baina egia da, gure haurtzaroan baziren bereiz ibiltzen ziren haurrak eta lotura egin dut. Beharbada nihaur ere holakoa izan nintzen. Konparazione, Hazparneko eskolan, herri ttipietatik aterata ginenok nardatzen gintuzten hirikoek eta bakarren batzuk zokoratu edo bereiziago ibiltzen ginen.

Gorrail Azeria berriz nolatan itzuli duzu?

Haurtzaroan irakurri dudana lehen liburuetarik bat da hori. Ez Donapaleuko pentsioan edo barnategian, irakurtzeko gogoa Herriko Eskolan hartu nuen. Aberats familiara zen errieta, eskuin muturreko eskalduna. Bere alaba eskola berean zen eta haren adinekoak hurbil hartzen gintuen. Urte guziz, Eguberrietan bereziki *Le Roman*

Gazteen arteko bereizkuntza

“Amikuzen, gazteen artean, badira hemengo mundua eta euskara arras galdua dituztenak eta badira hauei arras lotuak direnak, baina ez dago artekorik. Gure garaian aldiz asko ginen arteko ginenak. Guk ez genuen euskara galdu, ia osoki bizi ginen euskaraz. Konparazione, ni ez naiz idazlea izan, ez naiz ikasia maila horretan. Egun bereizkuntza handia da, badago euskal mundua arras arrotz duena, eta beste batzuk –Ikastolan ikasi eta etxean atxiki dutenak– gu baino aise ikasiagoak direnak. Lagunen arteko harremanik ia ez dago. Orain Internet eta mugikorren bidez egiten dira harremanak. Huts handia da. Auzo berean hori gertatzen da, familia bereko kusien artean geratzen da, bi mundutan bizi dira, batzuk euskaraz eta besteak frantsesez.

de Renard liburuko istorioak irakurrarazten zizkigun eta hartaz galdatzen. Duela bospasei urte liburu bera eskuratu nuen, istorioak gogora heldu zitzaizkidan eta pentsatu nuen ez zirela itzulia izan. Gero jakin dut itzulia dela, donostiar batek istorio batzuk itzuli dituela. Nik eskuan nuen liburuko istorio guziaz itzuli ditut, baina diotenez badira beste hamar bat istorio gehiago. Liburua XI. Mendekoa da, Erdi Arokoa. 26 idazle ezberdinek mende osoan idatziak dira. Istorioren bilduma bat da.

Gorrail Azeriako istorioetan ageri den mundua eta zuk bizi duzunaren arteko parekotasuna nabarmena da. Animalien mundua ere *Hotz beron* ageri da.

Aski hurbilak dira bi liburuen munduak, bai. Animalien mundua, konparazione: azeria abila da, eta jendea zozoa. Bi liburuen lotura Amikuzeko euskaraz idatzi izana da, eta naski, mundu biek oraino ere hein bateko parekotasuna gordetzen dute.

Etxean entzun al duzu mitologiari burutako istoriorik?

Gustukoa dut, baina ez dut hainbeste ezagutu. Neguan gaztainak jaten genituelarik istorioak entzuten genituen supazterean, ez sobera ere. Kontalariak ez ditut ezagutu, mitologiari buruzko are gutxiago. Ttipitan ikasi ditudan istorioak eskolan irakurriz ikasi nituen, familian eta inguruan ez dut hainbeste ezagutu.

Zure istorioetan laborariaren psikologia ageri da ene ustez, jukutria gisako zerbeit.

Nolazpait. Lekuak eta pertsona batzuk egokitu ditut, baina psikologian ez dut hainbat pentsatu, ez dut eragin handi hori ukan, neurez ez dut xerkatu bederen. Naturatik hurbil izateak istorioak izkiriatzen lagundu dit, hori bai.

Mundu hori joan badoa, joan dea?

Joana ez dakit, orokorki hartzen baduzu bai. Xeheki so egiten baduzu, egia da oraingoa eta hor ageri dena ez direla mundu bera. Nik eman ditudan istorioak zaharrak dira baina egungoak ere badira. Jendearen harremanetan hainbat joko berak dira. Baserrietan gauza asko aldatuz joan dira, baina aldi berean oraino atxikitzen diren hainbat ohitura kausitzen dituzu. Abila beti aterako da aitzina, zozoa beti hor da gibelean. Holakoak beti dira, ez dira lehenengo neurrian hartu behar, naski. Baserrian eboluzioa dago, mundu hau galtzen ari da nolazpait, euskara galtzen ari da, eta naturarekin bizitzeko eta aritzeko moldea ez da beti berdin bistan da. ■